

euskara eta feminismoa bidelagun

Azaroko astearteetan mahai-inguruak online

Antolatzaileak



Hizkuntza eta Generoa batzordea

‘Euskaldun’ izatea kategoria politikoa da

Zer da euskaldun izatea? Identitate hori nola eraikitzen da? Ondorioz, deseraiki daiteke? Galdera horietatik tiraka, hizkuntza hautuak politikoak direla eta aurre egin beharreko gatazkak aberasgarriak izan daitezkeela aldarrikatu dute Irene Arraratsek eta Lutxo Egiak, ‘Euskara eta Feminismoa bidelagun’ jardunaldietako bigarren saioan.

June Fernandez

"Esaten da hitza daukanak ezpata bat daukala. Baina esango nuke ezpata daukanak daukala hitza. Ezpata hori noski, boterea da". Hitza eta boterearen arteko harremana izan da berriro ere, halaberrez, ‘Euskara eta Feminismoa bidelagun’ jardunaldietako bigarren mahai-inguruaren abiapuntua. Irene Arrarats, *Berriako* euskara arduradun eta euskaltzain urgazleak, horrela hasi du Lutxo Egiak idazle eta kultur eragilearekin izan duen solasaldia: "Zer da euskaldun izatea? Identitate hori nola eraikitzen da? Ondorioz, deseraiki daiteke? Horiek dira solasaldiaren hariak. Orratzak, terminoak dira".

Hortaz, terminoen eta kategorizazioen gaineko burujabetasunaren garrantzia azpimarratu du Arraratsek: "Feminismoak esaten du emakumeak heterodesignatuak direla, boterea daukanak egiten duelako terminoen definizioa, feminismoa errealitatea izendatzen eta kategorizatzen hasi den arte". Hasteko, Euskadi terminoaren ibilbide historikoa aztertu dute bi hizlariek: nazioa zedarrizteko termino bat izan da, baina gaur egun askorentzat Espainiako autonomia bat da. "Kategoriak ez dira aldaezinak: errealitateak hizkerari eragiten dio, eta alderantziz. Nola pentsa, hala mintza", nabarmendu dute.

‘Besteak’ gara

Orduan, nor da euskaldun? Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dena? Euskal nazioaren subjektu politikoa? Euskaraz bizi dena? Arraratsek adiera klasikoari eustearen potentziala aldarrikatu du: euskalduna da euskaraz mintzo dena. "Bestela, euskaldun hitza ere oparituko diogu beste hizkuntzen ikuspegiari". Euskal Herrian bizi direnak izendatzeko, euskal herritar edo euskotar terminoak proposatu ditu. Solasaldian zehar, euskalgintzaren eta feminismoaren teorizazioen arteko analogiak egin dituzte hizlariek: "Joseba Sarrionandiak esaten zuen euskara dela gure territorio libre bakarra; bada, territorio hori gero eta txikiagoa da. Euskaldunek izan dute noizbait gela bat norberarena, eta gela hori gero eta estuagoa da", esan du *Berriako* Estilo Liburuaren zuzendariak.

Haren ustez, euskaldun / erdaldun kategorizazioa "zaharrena eta modernoena da, eta inklusiboa da", euskaldun identitatea esentzialistotik askatzen duelako: "Judith Butlerren laguntza gabe, guretzat euskara ikasten duena euskaldun egiten da, berdin du sorterria". Monique Wittig-en *Pentsamendu heterozuzena* liburu lesbefeministaren itzultzaile taldean parte hartu zuen Arraratsek, eta egile horrek *lesbiana politiko* kategoria proposatu zuelarik, *euskaldun* kategoriak izatearekin baino jardutearekin zerikusia duelako ideia indartzeko balio dezake.

Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek *Trikua esnatu da* saiakeran proposatu duten definizioa irakurri du Egiak: "Euskaldun diogunean norbere buruaren hautematearen alderdi linguistikoa euskaraz ardaztuta egiten duenaz ari gara, eta, bereziki, bizimodu eta herritar eskubideen egikaritzea euskaraz egiten (edo egiten saiatzen den) hartaz". Jule Goikoetxearen irakurketa kontrajarri du ondoren: "Euskarak ez gaitu euskaldun egiten, baginak emakume egiten ez gaituen

bezala. Subalternitateak egiten gaitu euskaldun, batetik, eta emakume, bestetik”. Teoria eta praktika feministen ekarpenak balioan jarri ditu Egiak euskalduna neutroa ez den subjektu politiko gisa nola sortzen den aztertze aldera.

“Ze seinale txarra, euskalduna zer den definitu behar izatea!”. Arraratsek hizkuntza eta generoaren arteko beste paralelismo bat nabarmendu du: emakume subjektua alteritate gisa eraiki du patriarkatuak, eta horixe bera gertatu da euskaldun subjektuarekin. Hots, gizonaren posizio berdintsua du erdarak: hizkuntza ez-markatua, neutrala, unibertuala. “Euskaldunak gara ‘besteak’, emakumeak ‘besteak’ garen bezalaxe”, ondorioztatu du. Ideia hori borobiltzeko, Egiak paradoxa bat utzi du agerian: “Euskaldunak sortu du erdalduna, baina erdalduna gai da 24 orduz erdaraz aritzeko eta gu ez. Ikaragarri gustatzen zait euskaldunok sortutako bestelakotasun hori, baina gero gu gara besteak”.

Transeuskaldunak

Lutxo Egia, 2015ean, hilabete batez bizi izan zen Bilbon euskaraz bakarrik hizketan. *Bilingual: Transitoak* deitutako performance horrek Euskaraldia inspiratu zuen. “Nik subjektu teoriko bat sortu nuen: euskaraz bizitzeko gai den pertsona. Euskaldunen esperientzia ez-jarraitua da; horregatik, transitzera behartuta gaude, *transeuskaldunak* gara, zirikatze moduan esan nuen baina egia da”. Judith Butler filosofo feministaren teoria ekarri du, azaltzeko genero rola performatiboak diren bezala, hots, arau sozialen arabera errepikatzean oinarritzen direla eta sari eta zigor sistema batek baldintzatzen dituela, euskararen jarduna ere performatiboa dela: “Euskalduna eguneroko praktikan egiten da euskaldun”. Eta hautu pertsonal hori, testuinguru diglosiko batean, non hizkuntza bat hegemonikoa den eta bestea minorizatua, hautu politiko bihurtzen da.

Ingurukoek esan zioten Lutxori bere esperientzia “erokeria hutsa” zela eta bere tesia “erradikala” zela. “Hau da, euskaldunen esperientzia erokeria da, erradikala da!”. Irenek erantzun dio: “Erradikala da errora jo zenuelako!”

Arnasguneak eta itoguneak

Euskal Herrian azken hamarkadatan entzun dugun mantra bat ekarri du Arraratsek: euskara ez dela politizatu behar. Euskarari bizkarra eman dioteneak eta euskaldunak jazarri dituztenek, euskaltzaletasuna aukera politiko jakin bati lotu diote. Baina, itzultzailearen ustez, dinamika horren irtenbidea ez da euskara despolitizatzea baizik eta politikaren esparruan kokatzea, ulertuta politika eta politikakeria gauza oso desberdinak direla.

Gaur egun, esparru publikoan euskaraz egitea hautu politiko bat da, eta askotan epai soziala eragiten du. Esaterako, ikastolako gurasoen bileran, euskaraz hitz egiteko eskubideari eutsiko dionari “nabarmenkeria” egotziko diote. “Ez da ikusten erdaraz ere egitea hautu politiko bat dela eta ekintza politikoa dela”, osatu du Arraratsek.

Aitzitik, norbanakoaren hautu linguistikoa ez da librea, hautu kolektiboen menpe baitago. Alde batetik, euskaldunek euskaraz egiteko duten eskubidea ez dago bermatua, baina, bestetik, euskara ikasi nahiko luketen erdaldun askok ez dute helburu hori lortzeko baliabiderik. “Kapitalismoa ere kontra dago!”, adierazi du Arraratsek; izan ere, bizimodu prekariora dutenek kostata aterako dute euskaltegira joateko ordu liberrik edo matrikula ordaintzeko dirurik.

Konnotazio txarra duen beste termino bat aldarrikatu du Lutxok: gatazka. “Badirudi beti saihestu beharrekoa dela, baina saihestezina da, bestetasuna berez gatazkatsua baita”. Euskaraz eginez gero, gatazka agertuko dela irudikatzeak baldintzatzen dute euskal herritarren eguneroko hautu linguistikoak: “Nola osatzen gaitu horrek euskaldun edo erdaldun?”

Jule Goikoetxea berriro aipatu du Irene Arraratsek, politologoaren esanetan gatazka delako politikoki aurrera eginarazten diguna. “Zer gertatzen da? Euskaldunontzat oso nekagarria dela. Arnasguneak izendatu ditugu; hortaz, gainerako eremuak zer dira? Itoguneak izango dira”. Euskaldunen eskubide linguistikoak bermatze aldera, itun bat proposatu du *Berriako* euskara arduradunak. “Zilegi da Euskal Herriko edozein eremutan eta edozein zirkunstantzian euskaraz jardutea? Erantzuna *bai* bada, moldatuko gara. Justizia kontua da, batez ere jakinda euskaldunok ez dugula nora joaterik: edo hemen edo inon ez”.

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren baitan konpromiso hori adostu zuten, eta xurxurlarien figuraren bidez bermatu da. “Borondate ona behar du euskaraz ez dakienaren zein euskaraz dakienaren aldetik. Baina irtenbide horrek gatazka aberasgarri bihurtzen du”. Aberasgarria izango da, adibidez, Euskal Herriko erdaldunak konturatu baitira “zer kultura oparoa dagoen euskararen

inguruan". Kike Amonarrizen hitzak ekarri ditu Egiak ideia hori indartzeko: "Kulturak bizkartzen du euskara".

Ahalduntzea vs. desboteretzea

"Euskaldun egin egiten gara" aipuaren froga da Lutxo Egia. 22 urterekin hasi zen euskara ikasten, eta onartu du euskaldun bihurtzea "unibertso gatazkatsu batera etortzea" izan dela: "Desboteretze ariketa bat izan da". Desboteretze horri aurre egiteko, ahalduntzea da beharrezkoa, eta horretarako feminismoak erakutsi du sendotze ideologikoaren premia: "Euskaltzaleok aurrera pauso bat eman behar dugu alde diskurtsiboan". Bere ustez, feminismoa bezala, euskalgintza ere pentsamendu eta praktika politiko gisa definitu beharra dago. Bide horretan, Euskaraldia tresna interesgarria iruditzen zaio, jolas baten bidez sendotze ideologiko hori errazten duelako.

Txateko galderei arreta emateko ordua heldu da, eta, hain zuzen ere, *euskaldun berri/euskaldun zahar* kategoriek gaur egun balio duten galdetu du norbaitek. Arraratsek *euskaldun oso* eta *euskaldun motz* kategoriak proposatu ditu; izan ere, badago euskara etxeko hizkuntza ez duen baina euskaraz bizitzeko hautu tinkoa egin duenik. Halere, onartu du gaur egun fikzio bat dela euskaldun oso izatea. "Ez dago baliabide materialik egiten dugun guztia euskaraz egiteko". Horrek kulturaren garrantzia berriro aipatzera eraman du: "Gehiago jasotzen dugu zinematik, telebistatik edo Youtubetik irakaskuntzatik baino". Txatean gogoratu dute ETB2-ri ETB1-i baino aurrekontu potoloagoa ematea ere badela hautu politiko bat da. "Onintza Enbeitak esan zuen ETB2 euskaldunak erdaraz egiten jartzeko makina bat dela", gaineratu du beste entzule batek Arraratsek *El conquis* eta halako saioetan euskaldunek beren artean erdarara jo behar dutela aipatu ondoren.

Eguneroko gatazka linguistikoari aurre egiteko orduan, izan liteke subjektu desberdinen posizioa desberdina izatea? Hau da, emakume batek, edo lesbiana ikusgai batek, ahobizi izateak eskatzen duen ahalduntzea lortzeko oztopo gehiago izango ditu? Egiak onartu du gizon hegemoniko gisa irakurria den aldetik, plaza modu batean hartzeko posizio pribilegiatuan dagoela, nahiz eta aldi berean hiztun gisa bere posizioa subalternitatearena den. Adina, lurraldetasuna, jatorria... Faktore askok zeharkatzen dituzte hiztunen identitateak eta praktikak. "Nekeza da, baina badu bere alde ona. Utopia da euskaraz bizitzea, esperantza bizirik mantentzea dakar utopia horretan sinesteak", ondorioztatu du Arraratsek.

euskara eta feminismoa **bidelagun**

Ez gara euskaldun jaiotzen, egin egiten gara

Azaroak 10, 10:00 - 11:30 mahai-ingurua



Irene
Arrarats
Lizeaga

Lutxo
Egia
Del Río



Antolatzaileak



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



EMAKUNDE
DEPARTAMENTO DE POLÍTICA DE MUJERES
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Hizkuntza eta Generoa batzordea